

OPE
2007



2007ko
LEP

KODEA Lanpostua/k:

C-7012

DELINEATZAILEA

1. ariketa. 2. proba

TEST GALDERAK

Galderak: 40.

Denbora, gehienez: 60 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Gogoan izan:
 - o Asmatuak: 1,00
 - o Hutsegiteak: - 0,33
 - o Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: - 0,00
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez ahaztu orri horia eta argibide-orria zeurekin eramatea.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

1.	Gasteizko udalerrria hiriak eta nekazaritza-eremuko herriek osatzen dute. Zenbat dira?
A	30 eta 34 artean
B	35 eta 44 artean
C	45 eta 60 artean
D	60 baino gehiago

2.	Gasteizko udalerrian dagoen elementu orografikorik gorenaren altimetria-kota –itsasoaren mailatik neurtua–, neurri hauen artean dago:
A	500 m eta 599ren artean
B	600 m eta 799ren artean
C	800 m eta 1.000ren artean
D	1.000 m-tik gora

3.	Ibai hauetatik, adieraz ezazu zein ez den Gasteizko udalerriko hidrografi sarearen baitakoa:
A	Zadorra ibaia
B	Alegria ibaia
C	Baia ibaia
D	Zaia ibaia

4.	Udaleko hiri-antolakuntzari gagozkiolarik, adierazi zein den plan partzial batek arautzen duen hirigintza-eremua:
A	Banaketa-eremua
B	Gauzatze unitatea
C	Hirigintza-poligonoa
D	Lurzoru urbanizagarriko sektorea

5.	HAPOk Hirigintza Arauen baitako Bide Sarearen Erabilera delakoak lau multzotan sailkatzen ditu berri atxikitako erabilera xehekatuak. Adierazi, ondorengo artetik, zein ez den erabilera xehekatu horietako bat:
A	Ibillbide ekologikoak
B	Hiriarteko bide sarea
C	Oinezkoentzako bide sarea
D	Nekazaritza-bideen sarea

6.	Hauxe da kainu-zulo bat:
A	Araztegiko solidoak dekantatzeko ontzian lohiak biltzeko elementu mekanikoa.
B	Galtzadan, normalean espaloi-zintarriaren azpian, euri- edo ureztapen-urari irtenbidea emateko egindako zuloa.
C	Saneamendu sare publikoko hartune-putzu partikular bakoitzari ematen zaion izena.
D	Ponpagailua jartzen den saneamendu sareko putzuari ematen zaion izena.

7.	Hauxe da bolardo bat:
A	Lurrean tinkatutako zutoin bat, ibilgailuei pasatzen edo aparkatzen ez uzteko jarria.
B	Hiri bateko norabide edo bide nagusiak adierazten dituen argizko panel bat.
C	Tranbia baten katenariari eusteko euskarrietako bakoitza.
D	Trafikoa arautzeko tresneria elektrikoa gordetzeko bide publikoan jarritako armairu bat.

8.	Bide zolatuak dituzten edo espaloiz inguratuta dauden lur sailak hiri-lurreko ondasun higiezintzat jotzen dira, baldin eta horrez gain honako hauek badituzte:
A	Ur hornikuntza, argindar hornikuntza eta telekomunikazio sarbideak.
B	Ur hornikuntza, estolderia, argindar hornikuntza eta telefonia.
C	Estolderia, ur hornikuntza, argindar hornikuntza eta argiteria publikoa.
D	Argindar hornikuntza, ur hornikuntza, estolderia eta zaborrak biltzeko zerbitzua.

9.	Maila freatikoari gagozkiolarik, adierazi zein den baieztapen zuzen bakarra, honako hauen artetik:
A	Maila freatikoa horizontala da beti.
B	Maila freatikoa sakonera berean egon ohi da beti, ez baitu loturarik geologi eta klima inguruabarrekin.
C	Lurraren irazkortasunak ez du eraginik maila freatikoan.
D	Presio atmosferikoan dagoen zona freatikoaren goiko mailari esaten zaio 'maila freatiko'.

10.	Lurraren gainazal esferikoa mapa edo planoetan irudikatzeko balio dute kartografia proiektzioek. Hauetatik, adierazi egon ez dagoen proiektzio mota:
A	Proiektzio azimutala
B	Proiektzio lauangeluarra
C	Proiektzio konikoa
D	Proiektzio zilindrikoa

11.	Honako hauetatik, adierazi zein den planimetrikotzat jotzen ez den metodo topografikoa:
A	Ibilbidea edo poligonal
B	Erradiazioa
C	Nibelazio trigonometrikoa
D	Ebaketa

12.	Hauxe da geodesiaren helburu nagusia:
A	Lurrazala, bertan diren xehetasun guztiekin –naturalak izan ala ez– irudikatzera iristeko beharrezko diren metodoak ikasi eta aplikatzea.
B	Era guztietako kartak ezartzea, lanaren fase guztiak hartzen direlarik: lehenengo jasotzeetatik hasi eta azkenik mapak inprimatu arte.
C	Lurraren forma eta neurriak aztertu eta zehaztea.
D	Edozein objekturen formak, neurriak eta espazioan duen posizioa aztertu eta zehatz mugatzea, nagusiki haren argazki bat edo batzuk erabiliz.

13.	Mercatorren Zeharkako Unibertsala (UTM) koordenada-sistemak, zein unitatetan adierazten ditu itsas mailako magnitudeak?
A	Gradu sexagesimalak
B	Gradu ehundarrak
C	Metroak
D	Miliak

14.	P izeneko puntu jakin baten longitudearen geografi koordenadak hauxe adierazten du:
A	P-tik igarotzen den plano meridianoak eta jatorrizko meridianoak eratzen duten angeluaren balioa.
B	P-tik igarotzen den paraleloak eta jatorrizko paraleloak eratzen duten angeluaren balioa.
C	P-tik igarotzen den meridianoak eta haren paraleloak eratzen duten angeluaren balioa.
D	P puntutik jatorrizko meridianora dagoen distantzia.

15.	Hauxe da erpin geodesikoa:
A	Meridiano baten eta paralelo baten arteko elkargune birtuala, jasotze topografikoen georeferentziak hartzeko erabiltzen dena.
B	Seinale iraunkor bat, lurrazalean zertua, lur-globo osoan barrena zabaltzen den triangelu sare batek osatua, zeinen koordenadak ahalik eta zehaztasunik handienarekin kalkulatu baitira.
C	100 Ha-tik gorako azalera hartzen duten lanei ekiten zaienean tresna topografikoak uzten diren puntuetako bakoitza.
D	Lurraren ardatza bere baitan hartzen duen plano eta ardatz magnetikoa bere baitan hartzen duen plano elkartzeko diren lurrazaleko leku geometrikoa.

16.	Ondoko zerrendako elementuetatik, adieraz ezazu zein den ezegokia zuinketa-eragiketa baterako:
A	Mira
B	Zuinketa-astoa
C	Mutxarda
D	Nibela

17.	Lur-erazketa obra batzuei dagokien luzetarako profila lortzeko, zenbat bider topografiatu behar da lurrazala?
A	Behin
B	Bitan
C	Hirutan
D	Lautan

18.	Proiektu arkitektoniko batean, zerk jaso behar du bere baitan aurrekontu balioetsia, kapituluz kapitulu?
A	Aldez aurreko azterlanak
B	Aurreproiektuak
C	Oinarrizko proiektuak
D	Gauzatze proiektuak

19.	Adieraz ezazu, ondorengo hauetatik, gizakion begiak hautematen duena marrazki batean ongien irudikatzen duen perspektiba mota, hau da, errealistena.
A	Konikoa
B	Axonometrikoa
C	Cavalieri-perspektiba
D	Lineala

20.	Adierazi baieztapen hauetatik zein den zuzena den bakarra:
A	Ez da nahitaezkoa Eraikuntza Kode Teknikoa betetzea, baina bai gomendagarria.
B	Udal arau teknikoek murriztu ditzakete Eraikuntza Kode Teknikoan araututako betebeharrak, suteen prebentzioari eta egitura-segurtasunari dagozkienak izan ezik.
C	Eraikuntzako Teknologi Arauak ez dira nahitaez bete beharrekoak.
D	Eraikuntza Kode Teknikoa betetzea borondatezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan.

21.	Adierazi baieztapen hauetatik zein den okerreko bakarra:
A	Gasteizko Udalak ostalaritza establezimenduen ezaugarriak arautzen dituzten arau tekniko propioak ditu.
B	Gasteizko Udalak zerbitzuguneen (gasolindegia) zenbait parametro arautzen dituzten arau tekniko propioak ditu.
C	Gasteizko Udalak babes ofizialeko etxebizitzak berariaz arautzen dituzten arau tekniko propioak ditu.
D	Gasteizko Udalak aparkalekuen neurriak berariaz arautzen dituzten arau tekniko propioak ditu.

22.	Fitxategi baten PDF luzapenak haxe adierazten du:
A	Trinkotuta dagoela, eta exekutatzean jatorrizko tamaina hartuko duela eta sortu zuen aplikazioak irakurri ahal izango duela.
B	Testua, grafikoak eta irudiak inongo plataformarekiko mendekotasunik gabe deskribatzen dituen Postscript lengoia-ereduan oinarritua dagoela.
C	Ordenagailuz lagundutako diseinurako plataforma desberdinen artean trukagarri dela.
D	Marrazki blokeak gordetzen dituela, hau da "marrazki liburutegiak" direlakoak.

23.	Adierazi ondorengo esakuneetatik zeinek osatzen duen Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen xedearen hitzez hitzezko aipamen hau: "Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, honako hauek bermatu eta babestea du xede lege organiko honek:"
A	Pertsona fisikoen askatasun publikoak eta funtsezko eskubideak, eta, bereziki, horien ohorea eta intimitatea, norberarena eta familiarena.
B	Pertsona fisiko nahiz juridikoen askatasun publikoak eta funtsezko eskubideak, eta, bereziki, horien ohorea eta intimitatea, norberarena eta familiarena.
C	Herritar guztien askatasun publikoak eta funtsezko eskubideak, edozein delarik ere beren egoera, horien ohorean eta intimitatean –norberarenean nahiz familiarenean– nahasi gabe.
D	Pertsona fisiko nahiz juridikoen askatasun publikoak eta funtsezko eskubideak, horien ohorean eta intimitatean –norberarenean nahiz familiarenean– nahasi gabe.

24.	Ondorengo fitxategi-formatuetatik, adieraz ezazu zein ez den argazki digital batek ematen duen informazioa jasotzeko estandarretako bat:
A	JPEG
B	XLS
C	TIFF
D	BMP

25.	Geografi Informazioko Sistemek Ordenagailuz Lagundutako Diseinurako (<i>Computer Aided Design, CAD</i>) sistemen aldean duten abantaila nagusietako bat hauxe da:
A	GISak gai dira zenbait datu objektu jakinekin uztartzeko.
B	GISak gai dira objektu jakin bat zehaztasun handiagoz irudikatzeko, irteera grafikoa.
C	Hainbat geruzaren edukia grafikoki batera irudikatzeko gai dira GISak.
D	GISak gai dira hainbat analisi-eragiketa egiteko eta lehendik dauden datuetatik abiatuz datu berriak eraikitzeko.

26.	Adierazi ondorengo hauetatik zein ez den jotzen ordenagailuz lagundutako diseinurako (CAD) sistema baten oinarritzat:
A	Modelatze geometrikoa.
B	Bitarteak irudikatzeko teknikak.
C	Ikusarazte teknikak.
D	Interakzio grafikorako teknikak.

27.	Adierazi, ondorengo hauetatik, zein den baieztapen zuzen bakarra, Geografi Informazioko Sistemen (GIS) raster eta bektore ereduiei gagozkielarik:
A	Sareen analisiak eraginkorrago eta zehatzagoak dira bektore ereduko GIS batekin.
B	Raster ereduko GISek bektore eredukoek baino memoria-edukiera txikiagoa eskatzen dute.
C	Xehetasun-eskala baterako, bektore ereduak ez ditu raster ereduak bezain emaitza grafiko zehatzak ematen.
D	Posizio-zehaztasuna handiagoa da raster eredu batean bektore eredu batean baino.

28.	Raster ereduko Geografi Informaziorako Sistema batean, errealitatea mapan irudikatzean, honako honen mende egongo da zehaztasuna:
A	Lauki-sarearen lerro eta zutabe kopurua.
B	Irudikatu nahi diren estratu edo geruza tematikoen kopurua.
C	Pixelaren tamaina.
D	Pixel bakoitzak potentzialki bere baitan har ditzakeen balio alfanumeriko desberdinen kopurua.

29.	Ondorengo tresna periferikoetatik, adieraz ezazu zein ez den irteera-unitatetzat jotzen:
A	Digitalizatzailea edo taula grafikoa
B	Ikusarazte monitorea
C	Erregistragailu grafikoa edo plotterra
D	Laser inprimagailua

30.	Zein da, AUTOCAD 2006ren testuinguruan, fitxategiak trukatzeko formatuari (<i>drawing interchange format</i>) dagokion fitxategi-luzapen zuzena?
A	DWG
B	DFX
C	DIF
D	DXF

31.	AUTOCAD 2006. Aplikazio horretan sor daitezkeen blokeei gagozkielarik, adierazi zen den okerreko baieztapena:
A	Kolore, mota eta lerro-lodiera ezaugarri desberdinekin hainbat geruzaren gainean marraztutako objektuez osatuta egon daiteke bloke bat.
B	LIMPIA komandoa marrazki batean erabiltzen ari diren blokeen definizioak ezabatzeko erabiltzen da.
C	Bloke definizio batek blokeari portaera dinamikoa eranstean dioten elementuak har ditzake bere baitan.
D	Marrazkietan lehendik txertatutako blokeak ez dira eguneratzen, gerora blokearen definizioa aldatzen bada.

32.	AUTOCAD 2006. Adierazi bloke definizioari egokitutako ondorengo ezaugarri hauetatik zein den okorrekoa:
A	Izen bat
B	Objektu bat edo gehiago
C	Blokea txertatzeko baliatuko diren koordenada-balioak
D	Zenbat bider erabiliko den

33.	AUTOCAD 2006 aplikazioaren baitako bloke-ezaugarriei gagozkielarik, adierazi zein den zuzeneko baieztapena:
A	Bloke batek ezin du eduki egokituta ezaugarri bat baino gehiago.
B	Bloke batek ezaugarri bat baino gehiago eduki dezake egokituta, baldin eta identifikatzaile desberdinak badituzte.
C	Ezaugarri batetik ateratako informazioa trazatu daiteke, baina ez erabili ez kalkulu-orri batean, ez datu-base batean.
D	Ezin dira sortu ezaugarri aldakorreko blokeak.

34.	Zein da, AUTOCAD 2006ren testuinguruan, bloke bati dagozkion ezaugarri-datuak eta informazio-testua fitxategi batera ateratzeko komando zuzena?
A	EXTDEF
B	ATRDEF
C	ATREXT
D	EXTATR

35.	AUTOCAD 2006n, Modelo delako fitxan, eredu-espazioko objektuak ikusi eta editatu daitezke. Fitxa horri gagozkielarik, adieraz ezazu baieztapen hauetatik zein den okerrekoa:
A	Modelo fitxa ez dago ezabatzerik.
B	Modelo fitxari ezin zaio izena aldatu.
C	Modelo fitxa lekuz alda daiteke.
D	Modelo fitxa ez dago bikoizterik.

36.	Ondorengo hauetatik, adieraz ezazu zein den zuzena, aurkezpen batean –AUTOCAD 2006 ingurunean– posible diren ekintzei gagozkielarik:
A	Marrazki bakoitzeko hainbat aurkezpen sor daitezke.
B	Eredu-espazioan sortu eta diseinatzen dira trazatuko diren aurkezpen leihoak.
C	Aurkezpen bakarra sor daiteke marrazki bakoitzeko.
D	Hainbat aurkezpen sor daitezke, eredu-espaziotik bakarrik.

37.	AUTOCAD 2006ren testuinguruan, eta kanpo erreferentziei gagozkielarik, adierazi zein den zuzeneko baieztapena:
A	Kanpo erreferentziak ezin dira edozein eskalatan bat egin.
B	Kanpo erreferentziek paper espazioko objektuak izan behar dute.
C	Kanpo erreferentziak edozein eskalatan bat egin daitezke, baina ez edozein posizio eta errotaziotan.
D	Kanpo erreferentziek eredu-espazioko objektuak izan behar dute.

38.	AUTOCAD 2006n, marrazki-fitxategi bateko informazioa beste aplikazio batean erabili beharra badago, esporta daiteke, berriazko formatu batera bihurtzeko. Ondorengoetatik, adierazi zein den horretarako formatu ezegokia:
A	Raster fitxategia
B	DXF fitxategia
C	XLS fitxategia
D	PostScript fitxategia

39.	AUTOCAD 2006ren testuinguruan, koordenada unibertsalen sistemaren (SCU) gainean jiraturako koordenada pertsonalen sistema bat (SCP) definitzerakoan, hauxe gertatzen da:
A	FORZCURSOR eta REJILLA moduek SCP berriarekin lerrokatuta jirutzen dute, eta ORTO moduak erreferentzia SCU izaten jarraitzen du.
B	FORZCURSOR, REJILLA eta ORTO moduek, guztiek jirutzen dute SCP berriarekin.
C	FORZCURSOR, REJILLA eta ORTO moduek, guztiek jarraitzen dute erreferentzia SCU izaten.
D	REJILLA eta ORTO moduek SCP berriarekin lerrokatuta jirutzen dute, eta FORZCURSOR moduak erreferentzia SCU izaten jarraitzen du.

40.	AUTOCAD 2006ren komandoetatik, zein da 3D ereduaren bista interaktibo bat aktibatzeko aukera ematen duena?
A	VISTADIN
B	PTOVISTA
C	3DORBITA
D	PLANTADIN